



Gipuzkoako
Foru Aldundia
Departamento de Cultura,
Cooperación, Juventud y Deportes



ETORKIZUNA ORAIN
Es futuro



Haur, nerabe eta gazteen sustapena *nola komunikatu herrian*



GAZTEMATIKA
Gipuzkoako Haur eta Gazteen Sustapenerako Sarea
Red de Promoción Infantil y Juvenil de Gipuzkoa



Egileak:



Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura, Lankidetz, Gazteria eta Kirol Departamentua.
Haur, Nerabe eta Gazteen Sustapen zerbitzua

Argitalpen-urtea:

2024ko martxo

**Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura, Lankidetz, Gazteria eta Kirol
Departamentua.**

www.gipuzkoangazte.eus







Aurkibidea



Sarrera	6
Komunikazioaren 5 ekintza-ildoak Gaztematikan	7
• Komunikazioaren antolaketa	7
• Edukien eta ezagutzaren kudeaketa	8
• Komunikazio-kanalen kudeaketa	8
• Prestakuntza eta aholkularitza	9
• Berrikuntza	9
HNG-en sustapenaren komunikazioa herrian	10
Egoeraren azterketa	11
Komunikatzearen helburuak	12
Zer, nori eta nola komunikatu	12
• Mezua	12
• Hartzaileak	13
• Euskarriak	14
Komunikazio-ekintzen plangintza, kronograma eta aurrekontua	16
Ebaluazioa	17





Sarrera



Haur, nerabe eta gazteen sustapeneko udal-unitateen helburu nagusia da, gure udalerrietako haurrek, nerabeek eta gazteek helduaroaren oinarri diren haurtzaroa eta gaztaroa gozatzea, esperimentatzea eta beren osotasunean bizitzea. Horretarako, gaikuntza, laguntza eta baliabideak eskainiko dituzte, erantzukizun publikoko zerbitzuen bitartez.

Herriko haurrak-familia, nerabeak eta gazteak dira, beraz, udalean egiten dugun lanaren azken xede-taldeak. Jakina, Gaztematikaren helburuak betetzeko, ezinbestekoa da talde horien eta, oro har, eragile eta herritar guztien parte-hartzea eta inplikazioa izatea. Hori lortzeko, berebiziko garrantzia du komunikazioak.

Izan ere, herritarrengan eragin nahi badugu, haiengana iritsi beharko dugu. Eta horixe da esku artean duzun gida honen helburua: HNGen sustapenean diharduen udal bakoitzari laguntza ematea bere komunikazioko ekintzak planifikatu eta garatzeko.

Dokumentu honek gure lurraldea osatzen duten udalerrri guztientzako baliagarria izan behar du, eta, aldi berean, komunikazio-funtzioak garatzeko oinarrizko eskuliburu erabilgarria izan nahi du, udalerrri ezberdinen errealitate hain askotarikoak kontuan hartuz. Gero, udalerrri bakoitzak, edozein egoera eta tamaina izanik ere, bere errealitatera moldatuko du, arloko arduradun bakoitzak gida honetan jasotakoa bere egin eta egokitu egin beharko du, bere lan-tresnak eta baliabideak erabiliz. **Ezinbestekoa da komunikazioa HNGen sustapeneko funtzio eta laneko gaien artean sartzea**, eta, beste ezeren aurretik dagokion profesionalak zer aukera, baliabide eta zailtasun dituen aztertzea. Jakina, komunikaziorako beharrezkoa izango den aurrekontua ere kontuan hartu beharko da.

Behar-beharrezkoa da, era berean, komunikazio-ekintzak ondo planifikatu eta gauzatzea. Izan ere, gure eguneroko lanak gure herrietan eragina izatea nahi badugu, horretarako komunikazio-estrategia egokia landu behar dugu.



Komunikazioaren 5 ekintza-ildoak Gaztematikan

Komunikazioaren gaia ez da berria gure sarean, ez gaude hastapenetan. Izan ere, aurretik egindako lanari esker, komunikatzeko 5 ekintza-ildo ditugu zehaztuta Gaztematikaren esparruan. HNGen sustapen-unitate bakoitzak guztiak kontuan hartu behar lituzke, eta maila batean edo bestean landu.




Komunikazioaren antolaketa

HNGen sustapen-unitatean komunikazioa lantzeko modua antolatu behar da, tokian tokiko organigramaren arabera, udalerriko komunikazio-plana osatzeko eta aurrera eramateko. Gainera, behar-beharrezkoa da komunikaziorako aurrekontu bat esleitzea.

Udal-unitate bakoitzak zer komunikatu, nori eta nola (zeren bitartez) komunikatu erabakiko du, tokian tokiko ikuspegia eta plangintza eta lurralde mailakoak kontuan hartuta. Komunikazio bakoitzaren interes-eremuak definituko ditu eta herriko eragile ezberdinen artean zabaltzeko koordinazio bat sustatuko du.

- Egutegi bat eratu, informazioak kronograma batean jarri. Informazioa dosifikatu.
- Tokian tokiko lan-tresna eta baliabide guztien bitartez komunikazioak sortu eta zabaldu.
- Udalerriko beste eragileekin (ikastetxeak, elkarteak, udala...) komunikazio-bideak sortu eta kudeatu.
- Zerbitzu bakoitza planifikatu eta garatzeko lanean komunikazioa txertatu.
- Herriko nahiz bestelako komunikabideekiko harremana sustatu.
- Komunikazioaren ibilbidearen segimendua egin. Ebaluazioa.



2

Edukien eta ezagutzaren kudeaketa

Ezagutza, eduki eta **baliabide espezializatuak bilatu eta sailkatzeko ikuspegi kritikoa** izatea da, baliozko ezagutza eta edukiak zabaltzea, eta sistemako parte-hartzaile guztiekin partekatzea.

- Tokian tokiko bestelako eragileak informazio-iturri gisa identifikatu eta harremanak sortu (gizartea, kultura, kirola, ikastetxeak, komunikabideak...).
- Informazioa jaso, aukeratu, kudeatu, sailkatu, zabaldu.
- Udal mailako dokumentu, informazio eta praktika interesgarriak Gaztematika sare osoarekin partekatu (Horretarako tresna egokia dugu: gure Komunitateko **"hariak"**¹ atala).




3

Komunikazio-kanalen kudeaketa

Gaztematika osatzen dugun eragile guztien artean eta xede-talde guztiekin **komunikatzeko kanalak sortzea, zabaltzea eta eraginkortasunez aritzeko moduan mantentzea da.**

- Web euskarrien eta sare sozialen erabilera estrategikoa planifikatu.
- Tokian tokiko komunikazio-kanalen diagnosia egin.
- Tokian tokiko komunikazio-kanalak martxan jarri eta kudeatu.

¹ <https://komunitatea.gaztematika.eus/>



4

Prestakuntza eta aholkularitza

Komunikazio-funtzioetara egokitzeko, ezinbestekoa izango da udal mailako zenbait **profesionalek beren gaitasunei komunikazioarekin lotutako batzuk gehitzea edo indartzea**, eta horretarako prestakuntza eta aholkularitza beharko dituzte.

- Komunikazioaren arloan lan egiteko behar berriak eta zailtasunak identifikatu.
- Komunikazioaren arloan dauden beharrei aurre egiteko prestakuntza-plana antolatu, lurralde mailako baliabideak nahiz toki mailakoak kontuan hartuta.


5

Berrikuntza

Ezinbestekoa da komunikazioko prozesu eta proiektu desberdinetan **etengabeko hobekuntzaren eta berrikuntzaren ikuspegia** sartzea.

- Unean uneko joera berrietan arreta jarri, aztertu, ezagutu eta nork bere egin.
- Berrikuntzei eta hobekuntzei buruzko jakintza eta informazioa partekatu.
- Zerbitzuetan komunikazio-arloko berrikuntzak eta hobekuntzak txertatu.





HNG-en sustapenaren komunikazioa herrian



HNGen sustapeneko udal-unitate bakoitzean, lehenik eta behin, komunikazioa nola antolatuko duzuen erabaki behar duzue, betiere tokian tokiko organigramaren arabera. Antolaketa horretan parte har dezakete, maila batean edo bestean, zinegotziak (komunikaziorako aurrekontua ere erabaki beharko da), teknikariak eta hezitzaileak/informatzaileak, betiere kasuistika bakoitzaren arabera. Kasuren batean udaleko prentsa-arduradunak ere parte har dezake; nolnahi ere, ezinbestekoa izango da harekin harremana izatea.


Garrantzitsua da komunikazioari lotutako ardurak ondo zehaztea. Jakina, komunikazioko lan-taldeko partaideak zein eta zenbat izango diren erabaki ondoren, zenbatean behin bilduko zareten eta taldearen dinamizazioa nolakoa izango den ere erabaki behar duzue. Taldeak komunikazioa sartu beharko du bere bileretako gai-zerrendetan, eta inoiz monografikoren bat ere egin dezake gaiari buruz. **Zer komunikatu, nori eta nola (zeren bitartez) erabaki behar duzue, tokian tokiko ikuspegia hartuta, eta baita lurralde osokoa ere.** Komunikazio bakoitzaren interes-eremuak (helburuak, hartzaileak, etab.) bertan definituko dira, eta komenigarria da herriko eragile ezberdinen artean nola zabaldu ere bertan koordinatzea.

Hona hemen komunikazio-arloari dagozkion zeregin batzuk:

- Plangintza-prozesu osoan komunikazioko ekintzak kontuan hartu: aurrekontuetan, ebaluzioan...
- Egutegi bat eratu, informazioak kronograma batean jarri. Informazioa dosifikatu.
- Tokian tokiko lan-tresna eta baliabide guztien bitartez komunikazioak sortu eta zabaldu.
- Udalerriko beste eragileekin (ikastetxeak, elkarteak, udala...) komunikazio-bideak sortu eta kudeatu.
- Komunikazioa txertatu zerbitzu bakoitza planifikatu eta garatzeko lanean.
- Herriko nahiz bestelako komunikabideekiko harremana sustatu
- Komunikazioaren ibilbidearen segimendua egin. Ebaluzioa.



Komunikazioari arreta eta denbora eskaini beharko dizkiogu, eta inbertsio ekonomikoa ere beharko da. Baina ondo egiten badugu, emaitzak nabaritutako dira.





Egoeraren azterketa



Komunikazioaren aldetik gure egoera zein den jakitea behar-beharrezkoa da, hobetu beharrak identifikatu, irtenbideak bilatu eta aurrera egin ahal izateko.

Nondik abiatuko garen jakiteko, komeni da udal bakoitzeko arduradunek ondoko galderei erantzutea:

Nire herrian jendeak ezagutzen al dute gure atala eta gure egitekoa?

Seguru asko, ez dute jakingo Gaztematika zer den; eta entzuna badute ere, ez dute asmatuko zer egiten duen azaltzen. Litekeena da udalerrri gehienetan udalaren gazteria-atala gehixeago ezagutzea, baina jakingo al dute zein helburu dituen esaten?

Nork sinatzen ditu gure komunikazio-ekintzak eta euskarriak?

Udalak? HNGen sustapeneko atalak? Zein logo jartzen ditugu? Aipatzen al dugu, zeharka bada ere, Gaztematika, grafikoki edo testuan?

Egiten ditugun komunikazio-elementu guztiak udalak eta Gaztematikak sinatu behar lituzkete beti (kartelak, prentsa-oharrak...), gure lana testuinguru orokorrean ulertua izan dadin, sarea indartzeko eta bere balioa azpimarratzeko.

Ba al dugu harremanik udalerriko beste eragileekin?

Udalerriko eragile guztiek izan behar lukete udalak HNGen sustapen-alorrean egindakoaren berri. Denak dira interesgarriak guretzat: ikastetxeak, gizarte-zerbitzuak, kultur eragileak

(dantza taldeak, musika-taldeak...), kirol-taldeak, astialdiko elkarteak, osasun-arloa...

Haiekin harremana landu behar dugu, haien datuak bildu eta antolatu, aldizka biltzeko ohiturak sortu, sistematizatu.

Komunikaziorako ekintza eta euskarri berberak erabiltzen al ditut beti?


Antolatzen eta garatzen dugun ekintza bakoitzak hartzaile jakin bat du, eta harengana heltzeko bide eta modu egokiena bilatzen saiatu beha dugu kasu bakoitzean. (bilera edo aurkezpenak, webgunea, kartelak...). Gainera, garrantzitsua da komunikazio-ekintzak garaiz antolatzea, testuingurua ondo prestatzeko.

Udalerrian zabaltzen diren hedabide guztiak erabiltzen al ditugu?

Harreman estua eta ona izan behar dugu herrian irakurri, entzun eta ikusten diren hedabide guztiekin. Denen datuak behar ditugu txukun, eskura, haiekin harremanetan jartzeko.

Bestalde, informazioa era interesgarriagoan aurkezten ahalegindu behar dugu.





Komunikatzearen helburuak

Komunikazio eraginkor batekin soilik lortuko dugu herrian haur, nerabe eta gazteen sustapena indarrean dagoela erakustea, udalaren lana ezagutzera ematea eta baloratua izatea. Baita Gaztematika sarea haurren, nerabeen eta gazteen alde egiten ari den lana ezagutzea ere. Era berean, antolatzen dugun ekintza bakoitzaren arrakasta ere hura komunikatzean lortutako eraginkortasunaren arabera izango da, neurri handi batean.

Gure komunikazio-ekintzen bitartez, honakoak lortu beharko genituzke:

- Udalak haur, nerabe eta gazteei eskaintzen dizkien zerbitzuak, baliabideak eta aukerak herrian zabaltzea.
- Herriko eta lurraldeko haur, nerabe eta gazteek gure zerbitzu eta ekintzetan parte hartzea.
- Gizartearen gehiengoak HNGen sustapena ezagutu eta oso ondo baloratzea.
- HNGen sustapenak herriko beste eragileekin harreman estua eta aberatsa izatea, eta elkarlanean ere ekintzak antolatzea.



Zer, nori eta nola komunikatu

Atal honetan, komunikatzeko lagungarriak izango zaizkizun **irizpide, gomendio eta baliabide** batzuk jaso ditugu, labur-labur:



Mezua

Dena da komunikatzeko modukoa

Antolatzen eta garatzen ditugun ekintza guztiak komunikatu daitezke, baina **ez dugu zertan den-dena komunikatu**: gizartearentzat (eta komunikabideentzat) interesgarria den pentsatu behar dugu. Ez da komeni garrantzirik gabeko informazio gehiegi zabaltzea. Egiten dugunaren alderdi erakargarria topatu eta kontaktzen asmatu behar dugu.

Erakargarria bada, hobe

Zerbait komunikatu nahi dugunean, **erraz ulertzeko moduan eta arin** ematen ahalegindu behar dugu, hartzailea gureganatzeko. Eskaintzen duguna ona dela sinesten dugu, eta halaxe adierazi behar dugu.

Bestalde, kontuan hartu behar dugu gizartea jada oso ohituta dagoela komunikazio-pieza (kartel, esku-orri, webgune, film, emankizun...) ikusgarrietara; hortaz, gureak ere deigarriak izan daitezzen saiatu behar dugu. Zentzu horretan, ezohikoa edo berezia denak errazago piztuko du jendearen arreta, eta gaurkotasun-kutsua izatea ere komeni da.



Ahaztu txosten luzeak, azalpen amaiezinak, taula beteak eta, oro har, era guztietako gehiegikeriak.

Mezu nagusia abiapuntu

Ekintzaren xehetasun erakargarrienari heldu, eta hortik abiatuta osatu eta aberastuko dugu komunikazioa, sormena erabiliz. Garrantzitsua/erakargarria dena azpimarratuko dugu lehenbizi, eta ondoren gainerako informazioa eman, hau da, lehen begiratuan bertan aterako duen etekina edo onura nabarmenduko diogu.

Udalerriko hedabideek aintzat hartzea nahi badugu, kontuan hartzekoak dira gomendio hauek.

Hartzailea dagoen lekura iritsi


Komunikatu beharreko mezua modu erakargarrian antolatu ostean, ondo aztertu behar da hura zein euskarritan edo komunikabidetan zabaltzea komeni den.

Non dago ekintza jakin baterako interesatzen zaigun hartzailea? Zein bide edo euskarriren bitartez iritsiko gara harengana? Zer gustatzen zaio? Nola? Zer garaitan?

2 Hartzaileak

Gure **hartzaileen aniztasuna** kontuan hartu behar dugu komunikazioa planifikatzerakoan; izan ere, era askotakoak eta oso desberdinak dira.

➤ Xede-taldeak:



* ikastetxeak, kultura-arlokoak, kirol-taldeak, osasun-arlokoak...



➤ Hedabideak:

- Tokiko telebista, irratia, egunkaria eta aldizkariak.
- Eskualdeko telebista, irratia, egunkaria eta aldizkariak.
- Tokiko kronika duten egunkariak.
- EAE osoan diharduten telebista, irrati, egunkari, aldizkari eta webguneak.

Ahalik eta harreman zuzenena izan behar da beti xede-taldeekin (bilerak, aurkezpenak, e-posta, telefonoa...). Ekintzaren xede-taldea osatzen dutenak gehiegi baldin badira, haietako bakoitzarengana zuzenean eta modu pertsonalizatuan zuzentzeko, guztientzako baliagarria izan daitekeen biderik egokiena aurkitu behar da (buzoneoa, e-mailinga, sare sozialak...). Horrek ez du esan nahi, jakina, beste euskarri batzuk ere baliatu ezin daitezkeenik (webgunean edo herriko aldizkarian albiste bezala edo iragarkia jartzea, esaterako).

Xede-talde bakoitzarengana erraz eta azkar iristeko bideak eskura eta txukun antolatuta izan behar ditugu; komunikazioan ondo moldatzeko, ezinbestekoa da gure hartzaileei buruzko informazioa izatea. Datu-baseak behar ditugu hedabideen e-posta eta telefono zenbakiekin.

3



Euskarriak

Aurreko atalean esan bezala, bide eta euskarri desberdinez balia gaitzke gure mezuaren hartzaileengana iristeko. Bitarteko horietako bakoitzak bere ezaugarriak eta abantailak ditu eta, beraz, kasu bakoitzean egokiena aukeratu beharko dugu. Hortaz, ekintza bat garatu behar dugun bakoitzean, tarte bat hartuko dugu hura nola komunikatu aztertzeko.

Bilerak eta aurkezpenak: Komunikazio zuzenerako oso egokiak dira. Barne-komunikaziorako erabili ohi dira, batik bat, baina xede-taldea oso handia ez bada, merezi du haiekin halako aurrez aurrekoak egin eta kontaktu zuzena aprobetxatzea jendea inplikatzeko.

Webgunea, sare sozialak eta buletina: HNGen sustapen-atalak bere webgunea edo udalarena erabil dezake, eta baita bertako sare sozialak ere, bere mezua sareratu eta Interneten daudenengana iristeko. Gerta daiteke, ordea, euskarri hau, bera bakarrik, nahikoa ez izatea.

Buletinak (edo whatsapp business-eko difusio taldeak) erabili ditzakegu gure komunikazioak jaso nahi dituztenei helarazteko. Hala, hartzaile batzuek gure informazioa jaso dutela ziurtatuko dugu.



E-mailing-a: E-posta bidezko bidalketa masiboa egiteko, xede-taldeen helbide elektronikoaren datu-base txukun eta eguneratua behar dugu. Ez ahaztu **datuen babesa**² kontuan hartu behar duzuela!

Buzoneoa: Bide oso egokia da udalerriko elkarten eta eragileen egoitzetara gutunak, esku-orriak edo dena delako komunikazio-euskarriak bidaltzeko. Mezua zehazki nori bidali erabakitzen laguntzen du, ahalegin handirik gabe. Hori bai, helbideen datu-basea ondo antolatuta eta eguneratuta izan behar da.

Publizitatea: Komunikabideetan (egunkari eta aldizkarietan, irratian, sare sozialetan...) edo publizitate-euskarrietan (hesietan, markesinetan...) iragarkiak jar ditzakegu, gehienetan ordainduta.

Esku-orriak: Formatu askotakoak izan daitezke eta era desberdinetan zabaldu: eragile mota jakin baten helbideetara bidaliz soilik; herriko etxebizitzetan zabalduz; hartzaileak ibili ohi diren lekuetan haien eskura jarritz (kiroldegia, kultur etxeak, tabernak, kontzertu-aretoak, ikastetxeak...).

Kartelak: Publizitate-euskarri egokiak dira gure mezuak ikusgai jarri nahi ditugun lekuetaraino eramanez izateko. Kaleetan, kultur etxetan, ikastetxetan, udaletxetan... nonahi jar daitezke. Eta merkea eta erraza izan daiteke haien kudeaketa (inprimatu eta itsatsiko dituen langilerik izanez gero udalean).

Merchandising-a: Gure irudi korporatiboa daramaten elementuak (egutegiak, orrialde-markatzaileak, bolalumak...) banatu ditzakegu, HNGen sustapen-arloak xede-taldeen artean presentzia handiagoa izan dezan edota, besteak beste, webgunearen helbidea sustatzeko.

Albisteak: Oso garrantzitsua da gure ekintzak eta mezuak komunikabideetan argitaratzea, eta horretarako **ahalegin berezia egin behar dugu planifikazioan.** Komunikabideetan nola agertu pentsatu behar dugu. Horretarako, lana eginda eman behar zaie kazetariei. Gainera, ez da nahikoa haiei prentsa ohar bat eta argazki bat helaraztea, jarraipena egin behar da (bidalitakoa jaso dutela ziurtatu, telefonoz deitu ekintzaren datu esanguratsuak emateko...). Kasu berezietan prentsaurrekoak ere egin ditzakegu.

² <https://www.gipuzkoa.eus/eu/web/kulturadigitala/baliabideak>



Komunikazio-ekintzen plangintza, kronograma eta aurrekontua

1

Plangintza

Gida honen helburua, azken batean, Gaztematikan dihardutenei komunikazio-lana diseinatu eta garatzen laguntzea da, ekintza zehatzen komunikazioa bideratzea baino gehiago.

Helburu horrekin, udalerriko HNGen sustapen-arloaren komunikazio plangintza egiteko gomendioak jasotzen ditugu. Jakina, herri bakoitzak bere errealitateari dagozkionak landu beharko ditu.

Udalan egingo diren ekintzen komunikazioa prestatzean aintzat hartzekoak dira honako hauek:

- HNGen sustapenean aurrera eramango dugun ekintza bakoitzaren komunikazioa garaiz eta ondo antolatzen badugu, aurrerapauso handia egingo dugu. Horrez gain, beste eragile batzuekin elkarlanean komunikazio-ekintza handi samar bat antolatzeko gai bagara, hobeto.
- Urtean zehar, uneren batean, udaleko HNGen sustapenaren berri emateko elkarrizketa bat lortzea komeni da tokian tokiko komunikabideekin. Hala, harremana garatuko du, lan egiteko modu bat ezarriko dugu, etab. **Ez ahaztu: eduki interesgarriak ditugu haientzat!**
- Egiten dugun guztiaren berri eman behar guke gure webgunean edo argitalpenean, horrelakorik izanez gero. Eta, horrez gain, ahal dugun guztietan, komunikabideei ere informazioa helarazi behar diegu argitara dezaten.



2

Kronograma


Garrantzitsua izango da, komunikazio-ekintzak planifikatzearekin batera, ekintza horiek denboran ondo antolatzea. Horretarako **kronograma** bat prestatuko dugu

3

Aurrekontua

Funtsezko baliabidea da komunikazioaz ari garenean eta, beraz, ondo azpimarratu beharrekoa. Gure sustapen-lanean komunikazioa txertatuko badugu, eta komunikazio hori egokia eta eraginkorra izatea nahi badugu, aurrekontu bat zehaztu beharko dugu arlo horretarako.





Ebaluazioa



Gure komunikazioaren plagintza garatu ondoren, **ebalatu egin beharko dugu**, lortutako emaitzak nolakoak izan diren aztertzeko, ikasteko eta, batez ere, hurrengoan zer hobetu behar dugun erabakitzeko.

Planifikatutako ekintza guztiak amaitutakoan gida honi beste begirada bat ematea komeni da, bertako gomendioak gogora ekartzeko eta, batez ere, atalez atal jarraituz eta galderei erantzunez hurrengorako komunikazio egokiago bat prestatzeko.

Non gaude?

- Jendeak ba al daki zer lan egiten duen gure atalak? Eta zer den HNGen sustapena edo GAZTEMATIKA?
- Komunikazio-euskarri eta bide ezberdinak erabili al ditugu? Zer komunikazio-erreminta ez dugu erabili? Erabili al dezakegu?
- Erabili ditugunekin izandako esperientzietatik zer hartu behar dugu kontuan hurrengorako?
- Udalerriko beste eragileekin harreman ona eta normalizatua al dugu? Eta bertan irakurri, entzun eta ikusten diren hedabide guztiekin? Zerbait hobetu al dezakegu haiekiko harremanean?




Non egon nahi dugu?

- Zein dira aurtengo gure helburu orokorrak komunikazioaren alorrean?
- Zer hobetu behar dugu xede-talde bakoitzarekiko komunikazioan?

Nola lortuko dugu?

- Edukiak modu erakargarrian transmititzen al ditugu? Zer hobetu dezakegu?
- Aurten, zein xede-talderengana iristeko egin behar dugu lan handiagoa?
- Zer komunikazio-baliabide erabiliko ditugu horretarako?
- Zer komunikazio-ekintza egingo ditugu aurten? Noiz? Nola?





Zuen udalerrian haurren, nerabeen eta gazteen sustapeneko lana komunikatzeko laguntza edo aholkularitza behar baduzue, edo zalantzaren bat argitu nahi baduzue, **Komunikazio Bulegoarekin harremanetan jar zaitezke**te beheko telefonoa edo helbide elektronikoa erabiliz.

Bestalde, komunikaziorako material baliagarriak topatuko dituzue: <https://www.gipuzkoa.eus/eu/web/gazteria/gaztematika/baliabideak> webguneko atalean.

Gainera, era honetako gidak eta eskuliburuak sortu ahala Gaztematika Komunitatearen bitartez zabalduko dira.

Komunikazio Bulegoa

GAZTEGUNE

Anoeta pasealekua, 28 - 20014-Donostia

Tel. 943 472 580 | gipuzkoangazte@gipuzkoa.eus



Gipuzkoako
Foru Aldundia
Departamento de Cultura,
Cooperación, Juventud y Deportes



ETORKIZUNA ORAIN
Es futuro



GAZTEMATIKA
Gipuzkoako Haur eta Gazteen Sustapenerako Sarea
Red de Promoción Infantil y Juvenil de Gipuzkoa